

EH Bilduren erakunde arteko proposamena 2026ko aurrekontuetarako

-
- EH Bilduk EAJ eta PSE-EEri egindako erakunde arteko negoziazio proposamenaren helburu nagusia hamar urteren buruan etxebizitza larrialdiari egiturazko irtenbide bat ematea da.
 - Etxebizitza-larrialdiari aurre egiteko, udalek, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak modu guztiz bateratuan jardun behar dute, etxebizitza-politika publiko integrala inplementatzeko.
 - Ondoren aurkezten den akordio politikoak erakunde nagusien (Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia) lau aurrekontuak onartzea ahalbidetuko luke.
-

Erakunde arteko proposamena

EUSKO JAURLARITZA

1. Etxebizitza publikoen sustapenerako Funts Soziala (informazio osagarria, agiriaren amaieran)

Datozen hamar urteetan 3000 milioi euroko inbertsioa egiteko gaitasuna izango duen funts publiko-pribatua sortzea proposatzen da. Funtsa honako bideen bidez hornituko da:

- Eusko Jaurlaritzak 1000 milioi euro bideratuko ditu funtsera, eta horretarako zorpetzea baliatuko du. Industriadako egin bezala, 2026ko aurrekontuetan 1000 milioi euroko zorpetzea ahalbidetuko da. Modu horretan, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza politikara bideratuko duen aurrekontua %15 haziko da urtero 2036 urtera bitarte.
- Eusko Jaurlaritza Europako Inbertsio Bankuarekin (BEI) eta Kreditu Ofizialeko Institutuarekin (ICO) 1000 milioi euro arteko funts gehigarriak lortzeko hitzarmenak sinatzen ahaleginduko da.
- Interes sozialeko entitate pribatuekin lankidetzat bilatuko da, interes tasa baxuko eta epe luzeko inbertsio ziur gisa, funtsean parte har dezaten, besteak beste, BBK, Kutxa eta Vital fundazio bankarioak eta BGAEak). Hamar urtetan 1000 milioi euroko finantzazioa erakarritza.

BERME PUBLIKOA

- Erabilitako formulak beti ere, %51ko partaidetza publikoa bermatuko du.
- Funtsak etxebizitza berria sustatzeaz gain, erosketa eta birgaitzerako baliatzea.
- Kontrol publikoa iraunkorra izan dadin lurzorua eskuratu eta lurzoru publikoan jardun.
- Alokairuko erregimenara bideratzea lehenestea.

MISIOA

- 10 urtetan, jabetza publikoko 30.000 etxebizitza babestu sustatzea nagusiki alokairura bideratutakoak.

2. EAE osoan alokairuen prezioei muga ezartzea

- Hiru hilabeteko epean Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba osoan alokairuen prezioak erregulatzeko tentsio eremuaren izendapena argitaratzea.
- Hiru hilabeteko epean erreferentziazko prezio-indizeen sistema argitaratzeko beharrezkoak diren baliabide material zein pertsonalak ahalbidetu ditzala.

FORU ALDUNDIAK

1. Eskualdaketen gaineko zerga (OEZ/ITP)

- Bigarren etxebizitzatik aurrerako eskualdaketen tasa %4tik, %8ra igotzea eta edukitzaile handien kasuan %6tik, %15era.

2. Etxebizitzen alokairuetatik jasotako etekinen zergapetzea

- Epe luzeko alokairuetatik lortutako etekinei errenergua ezartzea alokairuaren prezioa erreferentziazko prezioaren indizearen gainetik badago, eta hobaria ezartzea erreferentziazko prezioaren azpitik badago.
- Epe motzeko alokairuetatik (<urte bat) eta alokairu turistikoetatik lortutako etekinei %20ko errenergua bat ezartzea.

3. Lehen Etxebizitza erosteagatik kenkariak:

- Kenkari hau aplikatzen denetik gaur egun arte etxebizitzaren merkatuan zein aurrekontu publikoetan izan duen inpaktuaren ebaluazioa egitea.

UDALAK

Etxebizitza hutsak mobilizatzea: 15.000 biztanletik gorako herri guztietan etxebizitza hutsen deklarazioak abian jartzeko akordioa erdiestea.

Etxebizitza publikoaren sustapenerako Funts Sozialaz

- Eusko Jaurlaritzak funts horretan 1.000 milioi euro jarriko lituzke, zorpetzetik datozenak, eta hori egingarria da Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuarekin zorpetze-marjina 2.000 milioi handitzea adostu ondoren, zorraren muga BPGaren % 13tik % 15era igoz.
- Eusko Legebiltzarrak aurrekontu-erreforma bat onartu zuen maiatzean, EH Bilduren aldeko botoarekin, eta, horri esker, Eusko Jaurlaritzak 1.000 milioi euroko zorpetzea lortu du, industria-sarean inbertitzeko. Gure ustez, era berean, gainerako 1.000 milioiak etxebizitzaren politika publikora bideratu behar dira, gaur egun ondorio sozial eta ekonomiko larriekin aurre egin behar diogun arazo sozial larriena etxe-larrialdia baita.
- 1.000 milioi euroko inbertsio horrek Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-aurrekontua handitzea ekarriko luke, BPGaren % 1,5era iritsi arte, 2025-2027 Etxebizitza Plan Zuzentzaileak dioen moduan. Beraz, Jaurlaritzaren beraren helburuekin guztiz bat datorren proposamena da.
- Gure kalkuluen arabera, 1.000 milioi horiek beste 2.000 milioi euro ekar litzakete hurrengo hamar urteetan: 1.000 milioi euro Europako Banku Zentrala edo Kreditu Ofizialeko Institutua bezalako erakunde publikoetatik, eta beste 1.000 milioi euro herrialdean errotuta dauden interes sozialeko erakunde pribatuetatik, hala nola banku-fundazioetatik eta BGAEetatik. Zer gizarte-ekintza hobetik etxebizitza publikoaren sustapenean inbertitzea baino, eta zer inbertsio seguruagorik BGAEetarako etxebizitza publikoa baino (epe luzeko eta interes-tasa moderatuko inbertsioa). Hartara, aurreikus dezakegu etxebizitza publikoa sustatzeko funts publiko-pribatuak 3.000 milioi euroko hornidura izan dezakeela hurrengo hamar urteetan, eta horrek inbertsio publikoa BPGaren % 1.5etik gora mantenduko luke hurrengo hamarkadan, Plan Zuzentzaileak adierazten duen bezala, eta harreman publiko-pribatua artikulatuko luke interes sozialeko erakundeekin.
- Funtsa egituratzeko erabilitako formulak beti bermatuko luke gutxienez %51ko parte-hartze publikoa; funtsa etxebizitza berriak sustatzera ez ezik, erosketa eta birgaitzera ere bideratuko litzateke; etengabeko kontrol publikoa ziurtatzeko, lurzorua erosi eta lurzoru publikoan jardungo litzateke; eta alokairu-erregimena lehenetsiko litzateke.
- Ezaugarri horiek dituen funts publiko-pribatu batek emango lukeen inbertsio-ahalmena nahikoa izango litzateke hurrengo hamar urteetan aurreikusten den etxebizitza-eskaeraren zati handi bati aurre egiteko, etxebizitza-parke publiko handi bat eratuz, nagusiki alokairura bideratua, Etxebizitzaren Euskal Legeak ezartzen duen bezala.